

**Bizkaiko Foru Aldundiak** hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdia egin du. Berau arautzen duen martxoaren 14ko 810/2017 Foru Agindua martxoaren 20an argitaratu da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

### Nork har dezake parte deialdi honetan?

Deialdi honetara aurkeztu ahalko dira bai funtzionarioak eta lan-hitzarmen finkodunak, **bai bitarteko funtzionarioak baita aldi baterako kontratua duten langileak ere**, eskabidea egiteko epearen barruan kontratua indarrean badute.

### Nola egin eskabidea?

Eskabidea egiteko, jo helbide honetara:

<http://app.aldundia.bfa/apps/danok/KJ00/euskara/>

### Eskabidea egiteko epea

**Epea 2017ko martxoaren 21ean hasi eta apirilaren 10ean (biak barne) bukatuko da.**

### Azterketa-probak

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko prozesuak bi azterketa ditu: idatzia eta ahozkoa. Azterketa idatzian irakurmena eta idazmena neurtuko dira, eta ahozko azterketan, mintzamina eta entzumena.

Derrigorrezkoa da trebetasun guztiak gainditzea emaitza orokorra "GAI" izateko.

### Emaitzak

Azterketa-proben emaitzak posta elektronikoz jakinaraziko dira edo intraneteko orrian ikusi ahal izango dira.

## **OHARRA**

### **Azterketa idatziaren eta entzumenaren emaitza gordetzea.**

Irakurmena, idazmena eta entzumena gainditzen duten azterketariak salbuesita egongo dira gainditutako trebetasun horiei dagozkien ariketak egiteko hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako Bizkaiko Foru Aldundiaren hurren-hurrengo deialdian. Hortaz, zuzenean aurkeztuko dira mintzamenaren azterketara.

Aipatu salbuespenaren barruan eta baldintza berberetan egongo dira HAE Eren aurre-aurreko deialdian aurkeztu eta, lortutako emaitzen arabera, egoera berean aurkitzen diren Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomiadunen zerbitzuean diharduten langileak ere.

Hala ere, azterketari horiek probetarako izena eman beharko dute hurren-hurrengo deialdian eta dagokion epearen barruan.